



ERABILTZAILER ADITUA

Gai da norbere espezialitateko nahiz gai orokorretako testuak ulertzeko, eta egoerari egokitzuz, zuzen eta zehatz, arrakastaz ekoizteko. Gai da, jarioetasun handiz eta zehaztasunez, gauzak adierazteko, baita konplexutasun handiko egoeretan esanahiaren ñabardura txikiak bereizteko ere.

Irakastorduak	200
Bakarlana eta erabilera askea	500
Orduak guztira	700

C2: Erabiltzaile aditua

ENTZUMENA

Euskara batuan norbere espezialitateko nahiz gai orokorreko testuak ulertzeko gai izango da, bai aurrez aurre, baita hedabideetan entzundakoa ere. Euskalkietako berbaldia ere ulertuko du, zenbaitetan xehetasunak jasotzeko eragozpena badu ere.

MINTZAMENA

Edozein egoera eta esparrutan, norbere espezialitateko nahiz alor orokorreko ezagutzen inguruan, gai izango da elkarrizketa batean parte hartzeko, iritziak eta azalpenak emanaz eta eztabaidatuz. Era berean, gai izango da hitzaldiak eman eta mahai-inguru eta abarretan parte hartzeko.

IRAKURMENA

Euskara batuan zein tokian tokiko euskalkian idatziriko kultura-maila goreneko testuek eta bere arloko testu espezializatuek emandako informazioa jasotzeko gai izango da. Halaber, estilo desberdinen ñabardurez eta esanahi inplizitu nahiz esplizituez jabetuko da.

IDAZMENA

Era guztietako testuak zuzen, zehatz eta jator idazteko gai izango da, kultura-maila orokorreko nahiz goragoko gai sozialei edo norberaren espezialitatekoari buruz, hizkuntza formalean nahiz informalean arrakastaz eta egoerari egokitzuz.




Maila honetan matrikulatu ahal izateko, C1 mailaren agiria edo baliokidea izan beharko du ikaslegaiak. C2 Erabiltzaile adituaren maila lortzeko, 200 orduko ikastaroa egin beharko du ikasleak. Horiez gain, bakarlanean eta bere espezialitateari dagokion proiektua garatzen eta lantzen ikasleak beste 500 lanordu jardun beharra aurreikusten da.

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMA

HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN MAILAK

OINARRIZKO ERABILTZAILEA



ERABILTZAILE AURRERATUA



ERABILTZAILE ADITUA

